## KUADRILLAKO BATZARRAK 2024KO UZTAILAREN 16AN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAREN AKTA.

## ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA DE JUNTA DE CUADRILLA CELEBRADA EL DIA 16 DE JULIO DE 2024.

Santikurutze Kanpezun, 2024ko uztailaren 16an, Arabako Mendialdeko Kuadrillaren egoitzan, Kuadrillako Batzarra bildu da, ezohiko bilkuran eta lehenengo deialdian, Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jauna buru dela, eta honako batzarkideak elkartu dira:

Betolaza Pinedo, Juan José
Elorza Lorenzo, Lucía
Gaintzarain González de Durana, Urtzi
Nuñez Murillo, Rafael
Quintana Urrea, Myriam.
Sáez de Ocariz Samaniego, Unai
Waliño Arana, Larraitz.

Gemma Ramos Fernandez andreak Enrique Javier Moraza Pérez jaunak beren ezin etorria adierazi dute.

Era berean, Álvaro Castillo Cordero jauna, Arabako Mendialdeko Kuadrillako gerente-letradua, bertaratu da.

Presidenteak bilkura hasi du, 18:40ean, eta jendaurrekotzat jo du, hasteko beharrezkoa den bertaratze-quoruma egiaztatu ondoren, TAOLeko 46.2 c artikuluaren, AJAko 90. artikuluaren eta Kuadrillei buruzko 63/1989 Foru Arauaren 25. artikuluaren arabera, gai-zerrendan jasotako honako gai hauek aztertu dira:

En Santa Cruz de Campezo, a 16 de julio de 2024, en la sede de la Cuadrilla de Montaña Alavesa, se reúne la Junta de Cuadrilla, en sesión extraordinaria y en primera convocatoria, bajo la presidencia del Sr. D. Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz, y concurren los junteros y las junteras siguientes:

Betolaza Pinedo, Juan José
Elorza Lorenzo, Lucía
Gaintzarain González de Durana, Urtzi
Nuñez Murillo, Rafael
Quintana Urrea, Myriam.
Sáez de Ocariz Samaniego, Unai
Waliño Arana, Larraitz.

Excusa su asistencia la Sra. Dª. Gemma Ramos Fernandez y el Sr. D. Enrique Javier Moraza Pérez.

Así mismo, asiste a la Sesión D. Álvaro Castillo Cordero, gerente-letrado de la Cuadrilla de Montaña Alavesa.

Abierta la Sesión y declarada pública por la presidencia a las 18:40 horas, previa comprobación del quórum de asistencia preciso para que pueda ser iniciada, de acuerdo con los artículos 46.2 c de la LBRL, 90 del ROF y 25 de la Norma Foral 63/1989 de Cuadrillas, se procede a conocer de los asuntos siguientes incluidos en el Orden del día:

### 1.- 2024KO MAIATZAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Presidenteak galdetu du ea batzarkideren batek oharren bat egin nahi duen 2024ko maiatzaren 30ean egindako ohiko bilkuraren aktari buruz, zeina bilkurarako deialdiarekin batera bidali baitzen.

### 1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE DEL ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL 30 DE MAYO DE 2024

El presidente pregunta si algún juntero o juntera quiere formular alguna observación al acta de la sesión ordinaria celebrada el 30 de mayo de 2024 que se remitió junto con la

convocatoria de sesión.

Kuadrillako Batzarrak, bertaratutako zortzi batzarkideen aldeko botoarekin, aho batez erabaki du 2024ko maiatzaren 30ean egindako ohiko bilkuraren akta ONARTZEA.

La Junta de Cuadrilla, por unanimidad, con el voto a favor de los/as ocho junteros/as asistentes, acuerda APROBAR el al acta de la sesión ordinaria celebrada el 30 de mayo de 2024.

**2. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, 2. LGTBI KOLEKTIBOAREN, SEXU ASKAPENAREN ETA HARROTASUNAREN ALDEKO NAZIOARTEKO EGUNAREN HARIRAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.**

**2.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA SOLICITUD PROPUESTA DE DECLARACIÓN INSTITUCIONAL CON MOTIVO DEL DÍA INTERNACIONAL POR LA LIBERACIÓN SEXUAL Y EL ORGULLO DEL COLECTIVO LGTBI.**

Presidenteak hitza hartu du eta berdintasun arloko arduraduna den batzarkideari, Myriam Quintana Urreari, hitza ematen dio, eta horrek adierazpen instituzional proposamena irakurtzeari ekin dio:

El presidente interviene para dar la palabra a la juntera responsable del área de igualdad, Myriam Quintana Urrea, quien procede a dar lectura a la propuesta de declaración institucional:

**E28 dela eta Berdinduk, Eusko Jaurlaritzaren LGTBI kolektiboari informazioa eta laguntza emateko zerbitzu publikotik proposatutako adierazpen instituzionala**

**Declaración institucional por 28J a propuesta de Berdindu, servicio público de información y asistencia al colectivo LGTBI del Gobierno Vasco**

**Ekainaren 28an, LGTBI kolektiboaren, Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren aldeko Nazioarteko Egunean**, aniztasunetik, eskubide eta bizikidetzarekin dugun konpromisoa berresten dugu, kolektibo honen eskubide eta askatasunen aitortzan lortutako aurrerapenak ospatuz. Egun hau ez da ospakizuna bakarrik, egindako bidea eta oraindik benetako berdintasuna lortzeko egin behar den lana gogorarazteko ere bada.

Este **28 de junio, en el Día Internacional por la Liberación Sexual y el Orgullo del Colectivo LGTBI**, reafirmamos nuestro compromiso con los derechos y la convivencia desde la diversidad, celebrando los avances logrados en el reconocimiento de los derechos y libertades de este colectivo. Esta jornada no solo es una celebración, sino también un recordatorio del camino recorrido y del trabajo que aún queda por hacer para alcanzar una verdadera igualdad.

Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu sexu-askapenaren aldeko borrokaren alde ahaleginak batu dituzten pertsona eta erakunde guztiei. Bere dedikazioari, konpromisoari eta ausardiari esker, gaur lorpen garrantzitsuak ospa ditzazkegu giza eskubideen eta eskubide sozialen arloan. Pertsona horiek, beren

Queremos expresar nuestro más sincero agradecimiento a todas las personas y organizaciones que han unido esfuerzos en favor de la lucha por la liberación sexual. Gracias a su dedicación, compromiso y valentía, hoy podemos celebrar importantes logros en materia de derechos humanos y sociales. Estas personas, con su labor diaria,

eguneroko lanarekin, funtsezko zutabea izaten jarraitzen dute gizartea sentsibilizatzeko, kontzientziatzeko eta eraldatzeko, eta ingurune inklusiboagoa eta errespetuzkoagoa sortzen laguntzen dute.

continúan siendo un pilar fundamental en la sensibilización, concienciación y transformación social, contribuyendo a crear un entorno más inclusivo y respetuoso.

Hala ere, pertsona guztien berdintasunean aurrerapen ukaezinak egin diren arren, oraindik diskurtso LGTBIfobikoen albiste kezkagarriak sortzen dira, lortutako lorpenetan atzerakada bat dakartenak. Diskurtso horiek, askotan ezjakintasunak eta gorrotoak elikatzen dituztenak, lortutako aurrerapenak desagerraraztea eta diskriminazioa iraunaraztea bilatzen dute. Funtsezkoa da gizarte gisa erne eta tinko egotea eskuratutako eskubideen defentsan; hala, sexu- eta genero-aniztasunarekiko duintasuna eta errespetua kaltetzeko edozein ahalegin baztertuko dugu.

No obstante, a pesar de los innegables progresos en la igualdad de todas las personas, todavía surgen noticias inquietantes con discursos LGTBIfóbicos que representan un retroceso en los logros alcanzados. Estos discursos, muchas veces alimentados por la ignorancia y el odio, buscan minar los avances conseguidos y perpetuar la discriminación. Es crucial que como sociedad nos mantengamos vigilantes y firmes en la defensa de los derechos adquiridos, rechazando cualquier intento de menoscabar la dignidad y el respeto hacia la diversidad sexual y de género.

Sexu- eta genero-aniztasunaren ikusgarritasunak gizarte gisa aurrera egiteko aukera ematen digu. Aniztasun hori aitortzea eta ospatzea, justizia-ekintza izateaz gain, komunitate gisa aberasten gaituen aukera ere bada. Ez dugu inolako atzerapausorik onartuko kolektibo osoko ehunka lagunen ahaleginari esker lortutako eskubideetan. Irabazitako eskubide bakoitza gizarte bidezkoago eta gizatiarrago baterako urratsa da.

La visibilidad de la diversidad sexual y de género nos permite avanzar como sociedad. Reconocer y celebrar esta diversidad no solo es un acto de justicia, sino también una oportunidad para enriquecernos como comunidad. No permitiremos ningún retroceso en los derechos conquistados gracias al esfuerzo de cientos de personas de todo el colectivo. Cada derecho ganado es un paso hacia una sociedad más equitativa y humana.

Horregatik guztiagatik, ekainaren 28ak are garrantzi handiagoa hartu du. Herritarrak ekintzetara animatzen jarraitzen dugu, gorroto-diskurtsoak eta giza eskubideen urraketak irmo salatzeko. Funtsezkoa da guztiok injustiziaren aurka hitz egitea eta elkarrekin lan egitea diskriminazio mota oro desagerrarazteko. Ekintza

Es por ello que este 28 de junio cobra una importancia aún mayor. Seguimos animando a la población a actuar y a denunciar con firmeza los discursos de odio y las violaciones de los derechos humanos. Es fundamental que todos y todas alcemos la voz contra la injusticia y trabajemos de manera conjunta para erradicar cualquier forma de

kolektiboaren bidez bakarrik lor dezakegu benetako aldaketa iraunkorra.

Badakigu sexu- eta genero-aniztasunaren onarpen soziala gero eta handiagoa dela, neurri batean euskal gizarte osoaren elkarlanari esker. Lan hori funtsezkoa izan da armairurik gabe, loturarik gabe, aurreiritzirik gabe eta estigmarik gabe bizi ahal izateko, eta komunitatea eraikitzeko. Babes-keinu bakoitzak, ikusarazte-ekintza bakoitzak, mugimendu hori indartzen eta aurrera jarraitzeko gure erabakia berresten laguntzen du.

Horrenbestez, sentsibilizazio eta aldarrikapen-ekitaldiekin bat egitera gonbidatzen zaituztegu leihoetatik eta balkoietatik kolore anitzeko banderak zintzilikatuz. Keinu txiki baina esanguratsu hori elkartasunaren eta babesaren erakusgarri da, eta agerian uzten du gaur aniztasunaren aldeko borroka eguna dela. Astintzen dagoen bandera bakoitza erresistentziaren eta itxaropenaren sinboloa da, atzera egiteko prest ez gaudela dioen adierazpena, hain zuzen.

Azkenik, gogorarazi nahi dugu LGTBI eskubideen aldeko borroka guztion borroka dela. Ezin dugu onartu gorrotoa eta intolerantzia nagusitzea. Gaur, inoiz baino gehiago, gure aniztasunean bat egin behar dugu, pertsona guztiok duintasunez, errespetuz eta askatasunez bizi ahal izango garen etorkizun baten alde lan eginez.

Gaia eztabaidatu ondoren, bozketa egin da, eta aho batez onartu da 2. LGTBI Kolektiboaren, Sexu Askapenaren eta Harrotasunaren aldeko Nazioarteko Egunaren harirako adierazpen instituzionala.

discriminación. Solo a través de la acción colectiva podemos lograr un cambio real y duradero.

Somos conscientes de que la aceptación social de la diversidad sexual y de género es cada vez mayor, gracias en parte al trabajo conjunto de toda la sociedad vasca. Esta labor ha sido fundamental para construir una comunidad donde podamos vivir sin armarios ni ataduras, libres de prejuicios y estigmas. Cada gesto de apoyo, cada acto de visibilización, contribuye a fortalecer este movimiento y a reafirmar nuestra determinación de seguir adelante.

Por eso, invitamos a todas las personas que se unan a los actos de sensibilización y reivindicación, colgando de sus ventanas y balcones banderas multicolor. Este pequeño pero significativo gesto es una muestra de solidaridad y apoyo, y visibiliza que hoy es un día de lucha por la diversidad. Cada bandera ondeando es un símbolo de resistencia y esperanza, una declaración de que no estamos dispuestas a retroceder.

Finalmente, queremos recordar que la lucha por los derechos LGTBI es una lucha de todos y todas. No podemos permitir que el odio y la intolerancia prevalezcan. Hoy, más que nunca, debemos unirnos en nuestra diversidad, celebrando y trabajando de manera conjunta por un futuro en el que todas las personas podamos vivir con dignidad, respeto y libertad.

Debatido el asunto, se procede a la votación, quedando aprobada por unanimidad la propuesta de declaración institucional con motivo del Día Internacional por la Liberación Sexual y el Orgullo del Colectivo LGTBI.

**3.- ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, ANTOÑANAKO VASCO-NAVARRO BIDE BERDEKO AUTOMOTOREEN PABILIOI ZAHARREKO ALTZARIAK, AIREZTAPEN-SISTEMA, BEROKUNTZA ETA KANPOKO EGOKITZAPENA HORNITU ETA INSTALATZEKO OBRAK KONTRATATZEKO KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA**

Presidenteak jakinarazi du Interpretazio Zentroan egin beharreko azken jarduketari buruzkoa dela. Horretarako, LEADERen % 50eko finantzaketa dago, 61.858 €-koa. Gainerako zenbatekoa estaltzeko, dirulaguntza eskatu zaio Arabako Foru Aldundiaren inbertsio turistikoen lerroari (AFA). Horietatik, dirulaguntza hori 45.000 €-raino irits daiteke, eta 39.388,09 € lortu dira. Geratzen den zatirako (23.508,44 €), beste diru-sarrera batzuk bilatzeari ekin zaio beste erakunde batzuetan, hala nola AFAko Ingurumen Sailean. Edonola ere, proposamena da gainerako zatia udalei likidatzea, eskualdeko udalei gastu orokorrak likidatzeko koefizienteen arabera, Kuadrillako FOFFEL osoan duten pisu proportzionalaren arabera.

Aurrekoa ikusita, zazpi batzarkideren aldeko botoarekin (Juan José Betolaza Pinedo, Lucía Elorza Lorenzo, Utzi Gaintzarain González de Durana, Rafael Nuñez Murillo, Myriam Quintana Urrea eta Unai Sáez de Ocariz Samaniego jaun-andreak) eta Larraitz Waliño Arana andrearen abstentzioarekin, ondorengo ERABAKI hau hartu da:

LEHENENGOA.- Antoñanako vasco-navarro bide berdeko automotorren pabilioi zaharra kanpoaldetik egokitzeko, berokuntza, aireztapen-sistema eta altzariak hornitu eta instalatzeko kontratuaren espedientea onartzea, prozedura ireki sinplifikatuaren bidez, eskaintza ekonomiko onuragarrienaren irizpidearekin, eta 98.844,62 €ko (BEZik gabe) gehieneko

**3.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL EXPEDIENTE DE CONTRATACIÓN PARA EL CONTRATO DE OBRAS DE DOTACIÓN E INSTALACIÓN DE MOBILIARIO, SISTEMA DE VENTILACIÓN, CALEFACCIÓN Y ADECUACIÓN EXTERIOR DEL ANTIGUO PABELLÓN DE AUTOMOTORES EN LA VÍA VERDE DEL VASCO-NAVARRO EN ANTOÑANA.**

El presidente informa que se trata de la última actuación a llevar a cabo en el Centro de Interpretación. Para ello, se cuenta con financiación del 50 % de LEADER, por un importe de 61.858 €. Para el importe restante, se ha solicitado subvención a la línea de inversiones turísticas de la Diputacion Foral de Álava (DFA), de los que pudiendo llegar la subvención hasta unos 45.000 €, se han obtenido 39.388,09 €. Para la parte restante, 23.508,44 €, se están buscando otros ingresos en otras instituciones, como el departamento de Medio Ambiente de la DFA aunque la propuesta es liquidar a los ayuntamientos la parte restante conforme a los coeficientes de liquidación de gastos generales a los ayuntamientos de la comarca según su peso proporcional en el FOFFEL total de la Cuadrilla.

A la vista de lo anterior, con el voto a favor de siete junteros/as (D. Juan José Betolaza Pinedo, Dª. Lucía Elorza Lorenzo, D. Utzi Gaintzarain González de Durana, D. Rafael Nuñez Murillo, Dª. Myriam Quintana Urrea y D. Unai Sáez de Ocariz Samaniego) y la abstención de Dª: Larraitz Waliño Arana, se adopta el siguiente ACUERDO:

PRIMERO.- Aprobar el expediente del contrato para la obra de dotación e instalación de mobiliario, sistema de ventilación, calefacción y adecuación exterior del antiguo pabellón de automotores en la vía verde del vasco-navarro en Antoñana, mediante procedimiento abierto simplificado, con el criterio de oferta económicamente más ventajosa, por un precio máximo de 98.844,62 € + IVA no incluido.

prezioarekin.

BIGARRENA.- Baldintza Teknikoen Agiria onartzea, proiektuaren, memoriaren eta obra-planoen arabera, bai eta Administrazio Klausula Berezien Agiria ere. Horien edukiak bat datoz kudeaketa-beharrekin eta prozeduraren eskakizunekin.

SEGUNDO.- Aprobar el Pliego de Prescripciones Técnicas según proyecto, memoria y planos de obra y el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, cuyos contenidos se ajustan a las necesidades de gestión y a las exigencias del procedimiento.

HIRUGARRENA.- Prozedura irekitzea. Lizitazio publikorako deialdia egingo da, Kuadrillako Kontratatzailearen Profilean iragarkiak eta gainerako informazioa txertatuz.

TERCERO.- Disponer la apertura del procedimiento, convocando licitación pública mediante inserción de los anuncios y resto de información que proceda en el Perfil de Contratante de la Cuadrilla.

LAUGARRENA.- Kontratazio-mahaia. Kontratazio-organoak kontratazio-mahai baten laguntza izango du. Honako hauek osatuko dute kontratazio-mahaia:

- Presidentea: Kuadrillako presidentea, edo hark eskuordetzen duena.

-Bokalak (3):

- Kuadrillako gerente-letradua edo hark eskuordetutako pertsona.
- Eskualdeko arkitektoa; Kanpezuko Udala lantoki duena, edo hark eskuordetutako pertsona
- Eskualdeko arkitekto teknikoa, edo hark eskuordetzen duena.

- Idazkaria: erakundeko gerente-letradua izango da idazkari, eta, aldi berean, bokala.

CUARTO.- Mesa de contratación. El órgano de contratación estará asistido por una Mesa de Contratación, cuya composición es la siguiente:

. - Presidente: El Presidente de la Cuadrilla, o persona en quien delegue.

. - Vocales (3):

- El gerente-letrado de la Cuadrilla o persona en quien delegue.

- Arquitecto comarcal, destino Ayuntamiento de Campezo, o persona en quien delegue.

- Arquitecta técnica comarcal, o persona en quien delegue.

- Secretario: Actuará como secretario el gerente-letrado de la entidad, que será igualmente vocal.

BOSGARRENA.- Presidenteari baimena ematea behar diren dokumentuak sinatzeko eta kontratuak izapidetzeko eta esleitzeko.

QUINTO.- Autorizar al presidente para la firma de cuantos documentos sea necesarios y llevar a cabo la tramitación y adjudicación de los contratos.

SEIGARRENA.- Udalek beren gain hartzea proiektuaren defizita, Kuadrillako gastu orokorrak likidatzeko irizpideen arabera, eskualdeko udalaren pisua FOFFELen adierazten duen koefizientearen arabera.

SEXTO.- Asumir, por parte de los ayuntamientos, el déficit del proyecto según los criterios de liquidación de gastos generales de la Cuadrilla, conforme al coeficiente representativo del peso del ayuntamiento en FOFFEL total de la comarca.

ZAZPIGARRENA.- Jakintzat ematea

SÉPTIMO.- Darse por enterados de que la

presidenteak dagozkion aurrekontu-aldaketak egingo dituela.

presidencia llevará a cabo las modificaciones presupuestarias que procedan.

**4.- INTERPELAZIOAK, IZAPIDETZEKO GAIAK ETA PRESAKOAK**

**4.- INTERPELACIONES, ASUNTOS DE TRÁMITE Y URGENTES**

**PRESARI BURUZKO ERABAKIA**

**PRONUNCIAMIENTO SOBRE LA URGENCIA**

Presidenteak jakinarazi du astelehenean, Basquetourren eskutik, jakin zela Espainiako Ekoturismo Elkartean sartu behar zela Kuadrilla, eskualdeko lurralde-eremuan turismoaren erakunde kudeatzaile izaten jarraitzeko, sustapen ekonomikoko teknikariak jakinarazi duenez. Erabaki hori osoko bilkuran hartu behar denez, puntu hori gai-zerrendan sartzea proposatzen da, elkartean sartzea atzeratu ez dadin eta Kuadrillako Batzarra soilik horretarako deitu behar ez dadin.

El presidente informa de que el lunes se tuvo noticia, de la mano de Basquetour, de la necesidad de adherirse a la Asociación de Ecoturismo en España para poder ser ente gestor del turismo en el ámbito territorial de la comarca, según ha informado la técnica de promoción económica. Al deber adoptarse esta decisión en pleno, se propone incorporar este punto como orden del día a fin de no retrasar la incorporación en la asociación ni convocar una Junta de Cuadrilla únicamente a tal efecto.

Gaiaren funtsari buruzko eztabaida hasi denean, Unai Sáez de Ocáriz Samaniego jaunak proposatu du ez dadila orain gaiaren muinean sartu, baizik eta gai-zerrendan sartzea onartu ondoren.

Comienza el debate sobre el fondo del asunto, y D. Unai Sáez de Ocáriz Samaniego sugiere que no se entre en el fondo del asunto ahora, sino una vez aprobada su inclusión en el orden del día.

Arabako Mendialdeko Kuadrillako Batzarrak, aho batez eta presakotzat jo ondoren, gai-zerrendan aurreikusi gabeko puntu hau sartzea erabaki du:

La Junta de Cuadrilla de Montaña Alavesa por unanimidad y previa declaración de urgencia, acuerda incluir el siguiente punto no previsto en el orden del día:

**4.1 ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLA ESPAINIAKO EKOTURISMO ELKARTEKO BAZKIDE OSO GISA ATXIKITZEA**

**4.1 ADHESIÓN DE LA CUADRILLA DE MONTAÑA ALAVESA COMO SOCIA DE NÚMERO EN LA ASOCIACIÓN DE ECOTURISMO EN ESPAÑA**

Gaiaren funtsari dagokionez, presidenteak jakinarazi du elkarte horretan alta emanda egoteak duen garrantziaz gain, ez lukeela kostu ekonomikorik izango, Basquetourrek kuotak aldi baterako bere gain hartuko lituzkeelako.

En cuanto al fondo del asunto, el presidente informa de que además de la importancia de poder estar dados de alta en esta asociación, no tendría coste económico, al asumir, temporalmente, Basquetour las cuotas.

Gaia eztabaidatu ondoren, sei batzarkideren aldeko botoarekin (Juan José Betolaza Pinedo jauna, Utzi Gaintzarain González de Durana jauna, Rafael Nuñez Murillo jauna, Myriam Quintana Urrea andrea eta Unai Sáez de Ocariz Samaniego

Debatido el asunto, con el voto a favor de seis junteros/as (D. Juan José Betolaza Pinedo, D. Utzi Gaintzarain González de Durana, D. Rafael Nuñez Murillo, Dª. Myriam Quintana Urrea y D. Unai Sáez de Ocariz Samaniego) y la abstención de Dª. Larraitz Waliño Arana y Dª. Lucía Elorza

jauna) eta Larraitz Waliño Arana eta Lucía Elorza Lorenzo andreen abstentzioarekin, Arabako Mendialdeko Kuadrilla Espainiako Ekoturismo Elkarteko bazkide oso gisa atxikitzea erabaki da.

Lorenzo se acuerda la adhesión de la Cuadrilla de Montaña Alavesa como socia de número en la Asociación de Ecoturismo de España.

**5.- PRESIDENTZIAREN INFORMAZIOAK ETA ESKAERAK ETA GALDERAK**

Presidenteak hitza hartu du hainbat gairen berri emateko.

Lehenik eta behin, jakinarazi du Kanpezuko Udalak hainbat eskaintza jaso dituela desfibriladoreak eskuratzeko, eta adierazi du eskualde mailan eskaera bateratu bat eginez gero, ehuneko hogeita hamarrera arteko deskontuak eskaini direla. Larraitz Waliño Arana andreak interesa agertu du, bere udalerrirako ere begiratzen ari zelako, eta presidenteak alkateei eskaini die gai horri buruz berariaz hitz egiteko geratzeko.

Bigarrenik, jakinarazi du bizikleta-bideen eta ibilbide berdeen LPSren aurkezpena Kanpezuko udalerrian egingo dela, irailaren 5etik 17ra.

Hirugarrenik, eta abian dauden Kuadrillako LEPei dagokienez, adierazi du, alde batetik, epe laburrean lehiaketa bidez beteko diren prozesuak ebaztea aurreikusten dela. Bestalde, lehiaketa-oposizio sistemaren bidezko prozesuei dagokienez, azaldu du Kuadrillak aurrerapen handiak egin dituela azterketak egiteko lanak profesionalen esku uzterako eta epaimahaiak izendatzeko prozesuan.

Laugarrenik, jakinarazi da Eusko Jaurlaritzak behin eta berriz eskatzen duela Kuadrillak idazkari-kontuhartzaile lanpostua sortzeko. Horretarako, Gorbeialdeko Kuadrillarekin negozioetan dago Kuadrilla bi toki-erakundeen elkartzea aintzat hartzeko, kostuak aurrezte aldera, figura horrentzat ez baitago finantzaketarik, gerente-letradurentzako ez

**5.- INFORMACIONES DE PRESIDENCIA Y RUEGOS Y PREGUNTAS**

El presidente toma la palabra para informar de varios asuntos.

En primer lugar, informa que el Ayuntamiento de Campezo ha recibido distintas ofertas para dotarse de desfibriladores, indicando que en caso de hacer un pedido conjunto a escala comarcal se han ofertado descuentos de hasta el treinta por ciento. Dª. Larraitz Waliño Arana muestra interés en el asunto, que también estaba mirando para su municipio, y el presidente emplaza a las alcaldías a poder quedar para hablar específicamente de este asunto.

En segundo lugar, comunica que la presentación del PTS de vías ciclistas e itinerarios verdes se hará en el municipio de Campezo del 5 al 17 de septiembre.

En tercer lugar, y en cuanto a las OPEs de la Cuadrilla que están en curso, por un lado, señala que se prevé la resolución de los procesos cuyo sistema de provisión es el concurso en el corto plazo. Por otro lado, en cuanto a aquellos cuyo sistema de provisión es el concurso-oposición, indica que la Cuadrilla ha hecho avances importantes en la externalización de los exámenes a profesionales y en el proceso para el nombramiento de tribunales.

En cuarto lugar, se informa que son reiteradas las exigencias del Gobierno Vasco para que la Cuadrilla cree la plaza de secretaría-intervención. A tal efecto, se está negociando con la Cuadrilla de Gorbeialdea la agrupación de ambas entidades locales para repartir los costes, al ser una figura para la que no existe financiación, a diferencia del gerente-letrado.

bezala. Horretarako, aldez aurretik estatutu batzuk egin behar dira eta luzatu daitekeen izapidetze bati hasiera eman behar zaio.

Para ello, previamente hay que elaborar unos estatutos y dar comienzo a una tramitación que puede demorarse.

Bosgarrenik, presidenteak zehaztu du Kuadrillak aurrekontuak eskatu dizkiela hainbat enpresari, lanpostuen balorazioa egiteko. Izan ere, ez da baloraziorik egin izanaren zantzurik, berriki behintzat, eta funtzio eta eskumen batzuk zehaztu behar dira.

En quinto lugar, se da cuenta de que la Cuadrilla ha solicitado presupuestos a distintas empresas a fin de llevar a cabo una valoración de puestos de trabajo. El motivo es que no consta ninguna, al menos reciente, y que es necesario definir algunas funciones y competencias.

Seigarrenik, gogorarazten da, tokiko eskumeneko hondakinei buruzko alkatetzen bileran erabakitakoaren ondoren, Kuadrilla eskumenak eskuordetzeko hitzarmen-eredu bat lantzen ari dela, udaleko osoko bilkuretan eta Kuadrillako Batzarrean onartzeko.

En sexto lugar, se recuerda que, tras lo acordado en la reunión de alcaldías sobre residuos de competencia local, la Cuadrilla está trabajando en un modelo de convenio de delegación de competencias para su aprobación en los plenos municipales y en la Junta de Cuadrilla.

Zazpigarrenik, batzarkideei jakinarazi zaie, Arabako Foru Aldundiaren finantzaketarekin, Kuadrillak irailean orga jasotzaileari buruzko ikastaro bat antolatuko duela, aspaldi egin bezala.

En séptimo lugar, se traslada a los/as junteros/as que, con financiación de la Diputacion Foral de Álava, la Cuadrilla, en el mes de septiembre, organizará un curso de carretilla elevadora, como ya se hiciera anteriormente.

Zortzigarrenik, presidenteak positiboki baloratu du Arabako Batzar Nagusien ekainaren 22ko ate irekien eguna, atsegina eta ondo antolatua dela uste baitu. Kuadrillak bertan egoteaz gain, *stand* bat egon zen tokiko produktuarekin eta *slow food* sukaldaritzarekin. Hala ere, eskualdeko ekoizleen parte-hartze handiagoa ez izatea tamaldu du; izan ere, hiruk baino ez zuten produktua eman, eta bakar bat ere ez zen hurbildu produktua azaltzera.

En octavo lugar, el presidente valora positivamente la jornada de puertas abiertas de Juntas Generales de Álava del 22 de junio, que considera amena y bien organizada, en la que además de estar presentes las Cuadrillas, hubo un *stand* con producto local y cocina *slow food*. Lamenta, no obstante, que no hubiese una mayor participación de productores/as de la comarca, pues solo tres dieron producto y ninguno/a acudió a explicarlo.

Bederatzigarrenik, paperaren eta kartoiaren gatazkari dagokionez, presidenteak adierazi du badirudiela lan-gatazka amaitu dela eta lerroak indartzea aurreikusten dela, baina bertaratutako batzarkideak bat datoz esatean oraindik ez direla beren herrietatik igaro. Urtzi Gaintzarain González de Durana jaunak zehaztu du gatazka berriro ireki daitekeela, orduen ordainketa delako adostutakoa, nahiz eta hamar bat ordu lan egiten jarraitzen duten.

En noveno lugar, en cuanto al conflicto del papel y cartón, el presidente indica que parece que el conflicto laboral ha terminado y que se prevé reforzar líneas, si bien los/as junteros/as asistentes coinciden en que aun no han pasado por sus localidades. D. Urtzi Gaintzarain González de Durana matiza que el conflicto podría reabrirse, en tanto que lo que se ha acordado es la retribución de las horas, aunque siguen trabajando unas diez.

Larraitz Waliño Arana andreak neguko bidezaintzari buruzko kezka adierazi du. Izan ere,

Interviene Dª. Larraitz Waliño Arana para mostrar su preocupación sobre la vialidad

esleipendunetako batzuk zerbitzuarekin ez jarraitzea pentsatzen ari dira. Presidenteak jakinarazi du, kanpaina justifikatu ondoren, konponbidea bilatzen saiatuko direla.

invernal. En efecto, algunos de los adjudicatarios están pensando en no continuar el servicio. El presidente comunica que una vez se haya justificado esta campaña se tratará de buscar solución.

Aztergai gehiagorik egon ez denez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du, goian aipatutako eguneko 19:15ean. Eta, aztertu dena eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egiten dut. Akta hau hurrengo bilkurara arte ez da onartuko. Gerente-letradua naizen aldetik, nire sinadurarekin ziurtatzen dut akta hau, eta presidente jaunak sinatzen du.

No habiendo más asuntos que tratar, el Sr. presidente levanta la Sesión, siendo las 19:15 horas del día arriba indicado, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente acta, que queda pendiente de aprobación hasta la próxima sesión que se celebre, y que firma el Sr. presidente y certifico con mi firma como gerente-letrado.

**PRESIDENTEA**

D. EDUARDO RUIZ DE LOIZAGA SANZ jn.

16264206D EDUARDO RUIZ DE LOIZAGA (R: P0100412F)

Firmado digitalmente por 16264206D EDUARDO RUIZ DE LOIZAGA (R: P0100412F)
Fecha: 2024.07.17 12:58:32 +02'00'

**GERENTE-LETRADUA**

D. ÁLVARO CASTILLO CORDERO jn.

ALVARO CASTILLO CORDERO - 72845872L

Firmado digitalmente por ALVARO CASTILLO CORDERO - 72845872L
Fecha: 2024.07.17 12:59:01 +02'00'